

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIK

Nafarroako Gobernuak HeliNET proiektuaren lehendabiziko mintegia egin du udal ordezkariekin

Beaumont kontseilariak Ezkarozen aurkeztu zuen ostegunean larrialdietako helipteroen jarduna erraztuko duten heliazalaren sarea

Ostirala, 2018.eko apirilak 20

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilaria udal ordezkariekin bildu zen ostegunean Ezkarozen, HeliNET proiektuaren helburuak ezagutzera emateko eta larrialdietako helipteroen jarduna erraztuko duten heliazalaren sarea definitzeko asmoz.

Nafarroako Gobernua buru eta NASUVINSA, Eusko Jaurlaritza, Pirinio Atlantikoetako SAMU 64 eta Pirinioen bi aldeetako gainerako administrazioak –Andorra izan ezik– kide dituen POCTEFA HeliNET mugaz gaindiko europar proiektuak larrialdi, emergentzia, erreskate nahiz hondamendi naturaletako egoerak eta arriskuak elkarrekin kudeatzea du helburu. Proiektua [martxoaren 23an](#) eman zen ezagutzera, bazkide laguntzaileek antolatutako zabalkunde-bilera baten bitartez.

Lehendabiziko mintegi honetan, Beaumont kontseilariarekin batera, Barne Departamentuko zuzendari nagusi Agustín Gastaminzak, babes zibilarren zerbitzuko zuzendari Isabel Anautek eta HeliNET proiektuaz arduratu diren Fran Echeverria eta Amaia Osacar teknikariek parte hartu dute. Gainera, proiektua aurkezteko mintegian, honako erakunde hauek ordezkatzuta egon dira: Auritz, Luzaide, Aezkoa, Zaraitzu, Erronkari eta Urraulgoitiko udalak, Auritz eta Nabaskozeko suhiltzaileak eta Izabako suhiltzaile boluntarioak, Zangozako Foruzaingoa eta bertako osasun-barrutia.



Ezkarozen antolatutako lehen HeliNet mintegiaren irudia.

Ezkarozen egindako bileran, HeliNET proiektuaren ardatzak eman ziren ezagutzera, eta zehazkiago esanda, heliazalaren sarea finkatzea xede duen ekintzaren giltzarritzko puntuak. Hartara, heliazalerek larrialdietako helikopteroen lurreratzea bermatzeko bete behar dituzten baldintzak aurkeztu dira.

Lehendabiziko mintegi honen ondoren, Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak beste bat egingo du Larraun, Baztan, Ultzama, Bidasoa eta Mendebaldeko Pirinioko udal ordezkariekin, apirilaren 25ean, Bertizen. Proiektu honen barnean, halaber, “Helikopteroak Larrialdietan” lemapeko kongresua antolatuko da, baina oraindik ez dago zehaztuta noiz.

FEDERek finantzaturiko proiektua



Nabaskozeko heliazalera.